

TORRESOLOKO KIROL-GUNEKO PADEL-JARDUERAREN ERABILERA- PROKOLOA ETA -ARAUAK

Koronabirusak eraginda jasaten ari garen egoera dela eta, Torresoloko kirol-guneko padel-kantxen erabilera arautzen duen protokolo bat egin da.

Irekierarako arau orokorrak

Berriro ireki aurretik, garbiketa-enpresa batek sakon garbitu eta desinfektatu ditu instalazioak, gai homologatuak erabiliz.

COVID-19ak eraginda positibo eman dutenek, sintomarik gabekoak izan arren, ezin izango dira kirola egiten hasi.

Erabiltzaile guztiak sintomen zaintza aktiboa egitea gomendatzen da. Edozein sintoma izanez gero, kutsatuta daudelako susmoa edo kutsatutako pertsonekin kontaktuan egon direlako susmoa izanez gero, jarduera saihestu, eta berehala jarri behar dira harremanetan osasun-zerbitzuekin, haien jarraibide guztiak betetzeko.

Kirol-instalaziora sartu aurretik tenperatura kontrolatzea gomendatzen da.

Pala erabili aurretik eta ondoren garbitzea eta desinfektatzea gomendatzen da.

Kirolariek zorrotz zaindu behar dituzte norberaren garbitasuna, jokabidea eta ardura, kutsatzea saihesteko. Eskuak garbitu beharko dituzte kantxetan sartu edo horietatik irten aurretik eta ondoren.

Kirola egin aurretik eta ondoren, oso garrantzitsua da eskuak ur eta xaboiz edo gel hidroalkoholikorik garbitzea. Kirolari bakoitzak bere gel-potea eramango du prebentzio-neurri gisa. Era berean, gel horiek jarduera egiten den lekuetan egongo dira.

Irekitzeko eta kantxak erreserbatzeko ordutegia

Kantxak astelehenetik igandera egongo dira zabalik, 10:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Instalazioa ordubetez itxiko da, 15:00etatik 16:00etara, garbiketa- eta desinfekzio-lanak egiteko.

Kantxa bakoitzak erreserbako ordutegi/txanda bat izango du, osasun-gomendioen arabera, eta webgunean ikusi ahal izango da (erabilgarri dagoen unetik aurrera).

Kantxa bakoitzaren erreserba gehienez ordubetera mugatzen da.

Erreserba <https://leioakirolak.leioa.eus> webgunearen edo aplikazio mugikorraren bidez egingo da. Abian ez badago, instalazioaren 946 00 44 75 telefono-zenbakira deitu beharko da.

Erreserba udal kirol instalazioetako abonatuentzat bakarrik dago zabalik.

Kantxen alokairua banku-txartelaren bidez ordainduko da.

Erreserba egin ondoren, egun horretan bertan eta hurrengoan ezingo da kantxa-erreserba berririk egin, baina Udalaren kirol-instalazioetako abonatuaren kasuan, irekita dauden gainerako jardueretan erreserbak egin ahal izango dira.

Kantxak erabiltzeari buruzko arauak

Emandako ordutegiak eta kantxa bete eta hartu beharko dira beti.

Baimenduta dago 14 urtetik beherakoek norbait lagun egitea, bai eta osasun-arauan dibertsitate funtzionala duten pertsonen buruz ezarritakoa ere. Lagun egiten duten horiek horretarako jarritako eremu batean egongo dira, eta segurtasun-tarteari eutsiko diote une oro.

Aldagelak erabiltzea baimenduta dago, ezarritako edukieraren arabera, baina segurtasun-tarteari une oro eutsi beharko zaio.

Palak eta erraketak erabilera pribatibokoak dira, eta ezin dira partekatu.

Nork bere edaria eramango du. Ur-iturriak zigilatuta egongo dira.

Ez dira materialak, eskuoihalak, botilak, edariak, elikagaiak, linimentuak edo beste edozein gai partekatu edo trukatu behar. Entrenamenduak amaitzean dena desinfektatzea gomendatzen da.

Kirola egiten den bitartean, osasun-agintariek ezarritako segurtasun-tarteari eutsiko zaio beti.

Kantxetarako sarbidea ohikoa izango da, instalazioaren zuzendaritzak beste bat ezarri ez badu, zirkulazio- eta segurtasun-neurriak kontuan hartuta.

Erabat beharrezkoa da padel-eremua uztea kirol-jarduna amaitu bezain laster, kontaktu fisikorik ez izateko eta arriskuak saihesteko.

Bola berriak eta nork bere pala erabiltzea gomendatzen da. Ahalik eta pilota gutxien erabiltzea gomendatzen da.

Padel-eremuan soilik erabiltzeko oinetakoak edukitzea gomendatzen da.

Ezin da kantxaren aldea aldatu joko bakoitietan.

Kantxetara sartzeko hesiak eta ateak ukitzea saihestuko da, bai eta zutoinak eta sarea ere.

Ahal den neurrian, gomendatzen da aldagelak ez erabiltzea.



Gogoan izan:

Bete itzazu segurtasun- eta higiene-arau eta -protokolo guztiak zure eta besteen Osasuna babesteko. Ahalik ardura eta zuhurtasun handiena eskatzen da.

Instalazioan sartzen den orok araudia bete beharko du.

Gomendiook osasun-agintarien argibideen baitan daude une oro.